

ZUMAIAKO UDALA

GIPUZKOAKO PROBINTZIA

2004KO AZAROAREN HOGEITABOSTEAN UDAL PLENOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIKO AKTA.-

Zumaian, bi mila eta laugarren urteko azaroaren hogeitabostean, arratsaldeko zazpi eta erdietan, Udaletxe honetako Biltzar Aretoan, Udal Plenoa eratu da ohizko batzarraldia egiteko asmoz, aurrez izendatutako eguneko aztergaiari jarraituz. Eta garaiz eta era onez deituak izan zirelarik, ondorenean aipatzen diren udal bazkideak etorri ziren:

LEHENDAKARITZA.-

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA andrea.

ZINEGOTZIAK.-

Asier ESNAL ALBIZU jauna.
Manuel ZUBIA ARTABE Jauna.
Lide AMILIBIA BERGARETXE andrea.
Mikel OLAIZOLA ELOSUA jauna.
Andoni ETXANIZ OSA jauna.
Joseba Josu SPIAZU AZKARRAGA jauna.
Mikel GARATE GOLMAIO jauna.
Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA jauna.
Abel YEREGUI SASIAIN jauna.
Emiliano CABAÑAS GONZALEZ jauna.
Cristina FORCADA UNANUE andrea.

IDAZKARIA.-

Miren ETXEZARRETA GARMENDIA.

1.- AURREKO BILERETAKO AKTEN ONARPENA, BIDEZKO BADA (2004-09-30; 2004-10-21;2004-11-04 eta 2.004-11-18)

Osoko bilkura eratu ondoren, Alkate Lehendakari andreak zera galdetu die zinegotziei, onarpenera aurkeztutako aktetan aldaketa edo zuzenketaren bat egin nahi ote duten.

IZUSTARRI taldeak 2.004-11-18ko akta, atxiloketei buruzkoa, ez dutela jaso adierazten du.

Idazkariak e-mail-az igorri dela jakinarazten du, Udal bulegoen leku aldaketa dela medio, paperean bidaltzerik izan ez delako.

Alkatetzak akta hori aztertzeke modurik ez bada izan bere onarpena mahai gainean utzi dadila proposatzen du.

Proposamena aho batez onartzen da.

IZUSTARRI Taldekoek 2.004-10-21-eko Galvanizadosi buruzko aktan, jaso dena, zabaldu zen proposamenarekin ez datorrela bat diote. Eta argibide gisa soilik azalpenak eskatzen dituzte.

Idazkariak zera erantzuten du: Galvanizados-en expedienteari Alkate Dekretuz eman zitzaiola hasera, irailaren 20ean izan zen lehen isurketaren ondorioz. Ebazpen honen bidez epe bat ematen zitzaion isurketa gehiago izan ez zedin gutxieneko neurriak har zitzan eta bide batez hamar eguneko jendaurreko agerraldi epea zabaltzen zen alegazioetarako. Epe horren barruan enpresak oharpenak aurkeztu zituen, eta espedientea ixteko zegoela, aldi berean, bigarren eta hirugarren isurketak gertatu ziren urriaren 15ean. Hartu beharreko erabakiaren garrantzia kontuan izanik expedientearen ebazpena Plenora luzatu zen eta azken akordio proposamenaren zirriborroa banatu zen zinegotzien artean. Prozeduran zehar emandako urratsen berri ez zen banatu ezagutza bazenutelako. Plenoko akordioak banatutako proposamena jasotzen du eta aurrekari gisa emandako prozedura guztia. Funtsezkoa akordio proposamena da eta hori aktan hitzez hitz transkribatzen da.

IZUSTARRI Taldekoek 2.004-11-4ko aktan, Ordenantzei buruzko puntuan, onarpenera luzatutako proposamenean, azalpenen haserako zatian, tasa guztietako, ur hornidura eta zabor bilketa izan ezik % 3-ko igoera proposatzen dela dio. Baina hori ez da zuzena San Juan egoitzako egoiliarren kuotak gehiago igotzen direlako.

Zera erantzuten zaio onarpenerako luzaturiko proposamena hori izan zela eta horrela jasotzen dela aktan.

Egoiliarren kuota Tasa edo Precio Publikoa izan egon daitekela aldea ere aipatzen da. Proposamena aztertutik Egoiliarren kuota Tasa dela baieztatzen da.

Era guztietara proposamenak jasotzen du Egoitzako Egoiliarren kuota zein den nahiz eta azalpenen zatian expreski ez den adierazten.

Amaitzeko IZUSTARRI Taldekoek beraiek aurkeztutako emendakinean 8. Orrialdean, akats grafikoa nabarmendu dela diote.

Idazkariak erantzuten dio emendakinak eskaneatu egiten direla eta nahiz eta erreparasatu horrelakoak gertatzen direla.


E.A Taldeko bozemaileak akta berean Ordenantzen atalean 15. Orrialdean EA-ko botu esplikazioan, uraren prezioari buruz hitzegiten duenean, Azkoitiako igoera basatia % 300-a dela dioenean zehaztu behar da, hori, Azkoitiako Udaleko zinegotzi sozialistak esan zuela.

Bozkatzera deitu ondoren, osoko bilkurara bertaratutako zinegotziek aho batez onartu dituzte 2004-09-30, 2004-10-21 eta 2004-11-04ko aktak, adierazitako zehaztapenak jasota.

2.- ADIERAZPEN INSTITUZIONALA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA.

Gizarte Zerbitzu Batzordeko Lehendakariak adierazpen instituzionala Emakundetik datorrena dela dio. Hain zuzen gaur da azaroaren 25, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna. Egun hau dela eta, Oxford-en zenbait ekitaldi antolatu dira, tailerra eta antzerki bat besteak beste.

Ondoren adierazpen instituzionalaren textua irakurtzen du:



IZUSTARRI Taldeko bozemaileak Zumaian indarkeria pairatzen duten emakumeentzat etxerik badagoen galdetzen du. Eta zein egoera lazgarrian gauden adierazteko datu estatistiko batzuk ematen ditu.

Alkateak zera erantzuten dio, Brankan, giza baliabideen zentru berrian, eraiki diren apartamentu balioanitzdunetatik, bi apartamentu bikoitz, helburu horretarako gorde direla, hau da indarkeria pairatzen duten emakumeentzako aterpe gisa.

IZUSTARRI Taldekoak zera galdetzen dute 2.003-11-27ko Plenoan bi mozio onartu zirela genero indarkeria dela eta. Bata EAJ-rena eta bestea EB-rena. EB-ren mozioaren harian zera onartu zen Udalak Eusko

Jaurlaritzari eska ziezaiola ikerketa bat egitea banantze edo dibortzio epaien ondoren ordaindu gabe gelditzen diren pentsioei buruz. Ikerketa hori zertan den galdetzen dute.

EAJ-ak gaiari helduko diola erantzuten du.

Bozketa egitera deituta, udalbatza osatzen duten izatezko eta zuzenbidezko hamahiru kideetatik bilerara bertaraturiko hamabikideen aho batasunean,

ERABAKI DA

2.004ko azaroaren 25ean Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna dela eta Emakunderen adierazpen instituzionala onartzea.

3.- HIRIGINTZ HITZARMENA A.U.-12-(TORREAGA).

Alkateak gaiaren azalpenen atarian zera dio, hitzarmen honen ardatz nagusienak, Hirigintz Batzordean azaldu zirela. Baita ere Zumaia Lantzeneko Administrazi kontseiluan aipatu ziren nahiz eta zuzenki bertako gaia ez izan.

Orain hilabete dexentetik hona gabiltz hitzarmen hau gauzatu nahirik, lur jabe eta sustatzaileekin bilduaz, baina betiko moduan azken unerarte ez dira gauzak itxi. Behin betikoa izan daitekeen zirriborroa gaur jaso dut eta mahai gainean daukazue. Erlojuaren aurka gabiltz. Azken unerarte izan ditugu kezka eta zalantzak, baina negoziaketen funtsa agiri horretan islatu da.

Hamaika bilera egin ditugu Torreagakoekin, Urperekin eta sustatzaileekin.

Urpek beti adostasuna azaldu duen arren ez dugu lortu hitzarmenean sartzerik. Aurreko legealditik eskatzen zuten aprobetxamendua sartu dugu hirigintz Fitxan. Lekuz aldatzeko interesa ere azaldu dute. Beraien arazo ekonomiko larrien berri ere eman digute. Baina aurrera pausorik gabe.

Kontuan izanik, zumaiarrontzat garrantzitsuena Torreaga lekuz aldatzea dela aurrera jo dugu.

Beti ere kalteak sortzen dituen enpresa dela kontuan izanik.

Hitzarmenaren oinarria eta bideragarritasuna neurtzeko tresna gisa, Torreagari leku aldaketa kostuen txostena eskatu genion. Txosten horretan

zehazten dira gastuen atalean Sprik zenbatean saltzen dizkien lurrak, pabiloiaren eraikuntza eta hornidura kosteak, eta sarreraren atalean kontratistak lurra eta berari dagozkion hirigintz aprobetxamenduengatik ematen dien kopurua. Enpresa lekuz aldatzearen kostuak eta gaurko kokagunea saltzeagatik lortzen duten kopuruaren artean bi mila milioe pezetako aldea dagoela diote.

Alde hau gutxitu nahian zera eskatu dute: hirigintz aproetxamendua gehitzea, lur kutsatuen tratamendua bideratzeko Udalari dagokion hirigintz aprobetxamenduaren %10-aren lagapena gutxitzea, eta guneari dagokion Babes Ofizialeko Etxebizitzen kopurua beste leku batetara aldatu, beti ere lan karga jaitsi zaiela adieraziz eta enpresak egoera larria bizi duela gaineratuaz.

Enpresaren leku aldaketa gastuak orekatzeko edo hobeki esanda galera murrizteko, unitateari dagozkion Babes Ofizialeko etxebizitza kopurua, hots 42, beste unitate batera aldatze eskaera dela eta beraiek aurkeztutako bideragarritasun ekonomikoaren txostena azterturik, (besteak beste ingeniari bati ere luzatu zitzaion bertan aitortzen ziren zenbakien eta merkatuan ohizkoak direnekin alderaketa egin zezan eta onartzeko moduko zenbakiak zirela ondorioztatu zuen) tankera guztira aurkeztu dutena ontzat eman daiteke. Beraz Udalak Babes Ofizialeko etxebizitzak lekuz aldatzeko oneritzia emango luke.

Torreagako garapen unitatetik kentzen diren Babes Ofizialeko Etxebizitzak, zein gunetara eramán izan zen hurrengo eztabaida/negoziaketa. Hasera batean Narrondon egitea proposatu zuten. Narrondoko hirigintz fitxari Foru Aldundiak onarpenik eman ez zionez, eta une honetan suspentsioan egonik, ezinezkoa da bertan Babes Ofizialeko etxebizitzak eraikitzea.

Beste herrigunerik ez dago aukera hori ematen duenik, Puntanueta ez bada. Beraz Babes Ofizialeko etxebizitzak norabait aldatzekotan Puntanuetara izan beharko zuela adostu genuen.

Puntanuetako fitxak dituen zehaztapenak kontuan izanik Babes Ofizialeko etxebizitzen hirigintz aprobetxamenduaz gain etxebizitza tasatuena dago, unitatearen bideragarritasuna orekatzeko.

Zumaia Lantzenek Puntanuetan eraikitzen dituen etxebizitza tasatu gutxiago bakoitzagatik pairatzen duen galera ekonomikoa baloratu ondoren oreka lortzeko asmoz, Zumaia Lantzeneri kalte horren konpentsazio ekonomiko bat ordaintzea ere adostu genuen.

Beraz onarpenera luzatzen den hitzarmenaren arrazoia eta egitura hau da.

Ondoren hitzarmenaren textuaren osotasuna irakurtzen du.

Alderdieri luzaturiko hitz txandan, **PSOE**-koek epeak oso juxtuak direla diote.

EAJ-koek baietz erantzuten dute eta presa beraien aldetik datorrela gaineratzen dute. Izan ere, lege aldaketak bide, lehen bait lehen hirigintz fitxen aldaketak onartzea nahi dute lege eskakizun berriek ez ditzaten harrapatu. Lehen interesatuak beraiek badira ere, Udalari biziki interesatzen zaio enpresa lekuz aldatu dadin.

PSOE-koek fitxan Torreagako gunerako aurrikusten diren zenbait lagapen eta hirigintz hobekuntzei buruz aipamenak egiten dituzte. Hala nola, Udalari sustatzaileek eman behar dien 560 m²-ko azalera egokitua edo egokitu gabea, sarbide gisa erabiliko den barne plaza, sahiets bideak suposatuko dituen sestra aldaketak ...

EAJ-koek aipaturiko zehaztapenak garatu eta argitzen joango garela adierazten dute. Behen lagapenari dagokionez, hasera batean behinik behin 560 m² izan beharko dute gutxienez, egokitu gabeak; negoziatuko dugu metro karratu hauen egokitzapena. Sahiets bidearen bihurtuneak suposatu ditzaken aldaketak ez dute fitxaren aprobetxamendua aldatzerik, onartuta dagoen aprobetxamendua dagoena da eta sahiets bidean hobekuntzak ekar ditzaketen aldaketak badaude ongi etorriak, baina hori matizazio joku bat besterik ez da. Interes asko daude eta ahal den neurrian hauek denak bateratzea dagokigu.

E.A-koak hitz txandaren erabileran, hitzarmenaren helburu nagusiarekin adostasuna azaltzen dute hau da, Torreaga lekuz aldatzearekin. Hala ere bi hutsune nabarmen aurkitzen dizkiote hitzarmen honi:

- 1.- Herrian tasatutako etxebizitzaren kopurua jaitsi egiten dela.
- 2.- Torreaga unitatearen % 60-aren jabe besterik ez denez, proportzioan dagozkion etxebizitza babestuen kopurua aldatu beharko litzateke lekuz eta ez unitateari dagozkion denak.

Beraz guzti hau kontuan izanik eta egin den ahalegina baloratuaz gure botua abstentzioa izango da.

IZUSTARRI Taldekoek orokorrean babes ofizialeko etxebizitzak bere gunetik atera eta lekuz aldatzearen aurka egon arren kasu honetan leku aldaketa justifikatuta dagoela deritzogu, ontzat ematen dugu, beraz gure boza aldekoa izango da.

EAJ-ak IZUSTARRIri aldeko bozka eskertzeaz gain erronka denona izango dela adierazten du.

E.A-koeri zuzenduaz zera aitortzen dute etxebizitza tasatuen kopurua jaitsi egiten dela nahiz eta gure borondatea ez izan hori. Baina gure hirigintz arauen arabera ez daukagu leku fisikorik etxebizitza tasatuen eraikuntza bermatzeko. Alternatiba bakarra Puntanueta da. Aurrera jarraitzen badugu kostasekin egiten dugu topo. Basusta gainak lur publiko bokazioa izan arren barbetxoan utzi zen zortzu hamar urte aurrerako. Eta ez dago beste gunerik.

E.A-koek etxebizitza tasatuen kopurua jaitsi egiten dela azpimarratzen dute eta nahiz eta jakin negoziaketa batean zeditu ere egin behar dela, gehiegizko ahalegina egin dela deritzogu.

E.B- BERDEAK behin eta berriz errepikatzen den presa, denbora eza gaineratzen du. Bestalde E.A-k dioenarekin ados, ez dugu “gueto”-rik bultzatu nahi.

Eztabaida amaiturik bozketa egiten da, eta eskubidezko hamahiru zinegotzietatik bilerara bertaraturiko hamabi zinegotziren aldeko bederatz bi botuz (bost EAJ-renak, hiru IZUSTARRIrenak eta bat PSOE-koa), bi abstentzioz E.A, eta aurkako E.B-BERDEAK en botu batez, ERABAKI DA:

LEHENENGOA: Zumaiako Udalak eta TS FUNDICIONES TORREAGA S.A eta PROMOCIONES TORREAGA S.L-k, Zumaiako Arau Subsidiarioetako 12. Hirigintz guneko, 2. Exekuzio Unitateko (TORREAGA) hirigintz garapenerako hitzarmena izenpetzea onartzea.

BIGARRENGOA: Alkate Lehendakariari nahiko gaitasun ematea hitzarmen hau izenpetzeko eta erabakia eraginkor gerta dadin bidezko diren aldaketa puntulak egin ditzan.

4.- ZUMAIAKO BIDE PUBLIKOEN IKERKETA, HASERAKO ONARPENA, BIDEZKO BADA:

Alkateak gai hau Hirigintz Batzordean aztertu dela adierazten du. Une honetan haserako izaeraz onartu eta jendaurreko agerraldi epea zabaltzea dagokigu. Denbora horretan bidezko diren oharpenak aurkez ahal daitezen.

E.A-koek iradokizun gisa baserritarreri ikerketa honen berri jakinaraztea eskatzen dute eta bide batez URKOME-ri ere bai.

Eztabaida amaiturik bozketa egiten da, eta eskubidezko hamahiru zinegotzietatik bilerara bertaraturiko hamabi zinegotziren aho batasunean, ERABAKI DA:

1.- Zumaiako Udalaren ekimenez, Conchi Uriarte Seminariok, Maria Jesus Antia Albizuren lankidetzaz, idatziriko Zumaiako bide Publikoen ikerketa haserako izaeraz onartzea

2.- Jendaurreko hilabeteko epea zabaltzea oharpenen helburuetarako. Epe horretan oharpenik aurkeztuko ez balitz ikerketa behin betikotzat onarturik geldituko da beste onarpenen beharrik gabe.

5.- OTALORA-BASUSTA LUR ERRESERBA PROIEKTUA: ZUMAIA LANTZEN S.A-K TERRENOAK EROSTEAN, UDALETXEARI JAKINARAZPENA EGINDA EMATEA.

Alkateak zera adierazten du, Otalora-Basusta Lur Erreserba Proiektua onartu izanak Udalarekiko ondorio batzuk dituela.

Batetik Udalak bertan barneratutako lur sailak erosteko epe mugatu bat du eta bestetik lur jabeak saila saldu nahiko balu, aurrez Udalari jakinarazi behar dio erosteko lehentasun eta atzera-eskuratze eskubideak egikaritu ahal ditzan.

Zentzu honetan, lur jabeek Zumaia Lantzen S.A-ri lur sailak saltzen dizkienean Udalari jakinarazi behar die.

Beraz eroslea Zumaia Lantzen S.A den kasuetarako, akordio hau hartzea proposatzen da: Lur jabeari Udalari jakinarazpena egitetik salbuestea.

Eztabaida amaiturik bozketa egiten da, eta eskubidezko hamahiru zinegotzietatik bilerara bertaraturiko hamabi zinegotziren aldeko hamaika botuz (bost EAJ-renak, hiru IZUSTARRIrenak, bi E.A-renak eta bat PSOE-koa), eta E.B-BERDEAk en abstentzio batez, ERABAKI DA:

LEHENENGOA: Zumaia Lantzen S.A eroslea den kasuetarako, lur jabeari, Otalora-Basusta Udal Lur Ondare Erreserba Proiektuan barneratutako lur sailen besterentzea baimentzea, Zumaiako Udalari legezko eran eros lehentasun eta atzera- eskuratze eskubideak egikaritu ditzan helburuaz egin beharreko jakinarazpenaz salbuetsiaz.

BIGARRENGOA: Akordio hau, Zumaia Lantzen S.A-k, Otalora-Basusta Udal Lur Ondare Erreserba Proiektuan barneratutako lur sail guztien erosketetara zabaltzen da.

HIRUGARRENGOA: Akordio hau eraginkorra izango da, aurkakoa ez den beste akordio bat hartzen ez den bitartean.

6.- SAN JUAN EGOITZAKO 2. KREDITU ALDAKETA ONARTZEA BIDEZKO BADA.

Hazienda Batzordeko Lehendakariak astearteko bileran aztertu zela dio.

Aurrekari modura adierazi behar da Kreditu aldaketa honen xedea, ekainean, San Juan Egoitzan Auzolagun enpresako langileen grebaren ondoren sinatu zen lan hitzarmenaren soldata igoerak ordaintzeko gastu partiden gehikuntza eta erabiltzea proposatzen diren baliabideak, sarrera partida handiagoen bidez, erregularizatzea dela dio.

Ondoren Kreditu Aldaketa irakurtzen du:

SAN JUAN EGOITZAN 2004KO 2 ZK-KO KREDITU ALDAKETA EGITEKO PROPOSAMENA			
PROPUESTA DE MODIFICACIÓN DE CRÉDITO Nº 2 - 2004 DE LA RESIDENCIA SAN JUAN			
	GASTU PARTIDEN GEHIKUNTZA / AUMENTO PARTIDAS DE GTO		102.604,00
	II. KAP. - ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN EROSK.		102.604,00

	COMPRA DE BIENES CORR. Y SERV.		
1-00-00-227-000-00-07	Contrato auxiliares	102.604,00	
	KREDITU ALDAKETA GUZTIRA / TOTAL MODIFICACIÓN DE CRÉDITO		102.604,00
	ERABILTZEA PROPOSATZEN DIREN BALIABIDEAK		
	RECURSOS QUE SE PROPONEN UTILIZAR		
	SARRERA HANDIAGOAK / MAYORES INGRESOS		102.604,00
2-00-00-420-000-00-01	Transferencia de la Diputación	92.574,94	
2-00-00-422-000-00-00	Transferencias de otros ayuntamientos	4.298,27	
2-00-00-430-000-00-00	Transferencia del ayuntamiento de Zumaia	5.730,79	

Haziendako zinegotziak onarpenera aurkezten diren zenbaki hauen azterketak nabarmen uzten duela dio, Udalak ekainean behin eta berriz adierazi zuena, hau da Foru Aldundiak zer esan handia zeukala, azken finean gastuaren finantzaketaren % 90-a bere kargu bait doa eta gainerakoa, aldiz, Zumaiako Udala eta beste Udal batzuen artean banatzen da. Kreditu aldaketaren finantziaketa hiru administrazioen esku dago, baina besteekiko nagusitasun handiz Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku.

IZUSTARRI Taldekoek hitz txandaren erabileran bozketan abstenitu egingo direla aurreratzen dute.

Lan hitzarmenarekin ados bagaude ere eta langileen lan baldintzak hobegotzearekin, ordainketaren gain kargua enpresaren esku egon behar duela uste dugu.

Enpresak, Egoitzarekin duen kontratuaren arabera eskaintzen duen zerbitzuagatik kopuru bat kobratzeko eskubidea jasotzen du.

Kopuru hau aldatzeak kontratuaren baldintzak aldatzea suposatuko luke.

Negoziaketa langile eta enpresaren artekoa izan beharko luke.

EAJ-koek **IZUSTARRI**-k dioenarekin guztiz ados daudela diote. Eta zerbitzu hori baldintza berrietan kontratatzeko, deialdi publiko bat egin behar dela gaineratzen dute.

Negoziaketetan azken hitza Udaletxeak izan zuen subsidiarioki erantzule denek Udaletxea hartzen zutelako.

Eztabaida amaiturik bozketa egiten da, eta eskubidezko hamahiru zinegotzietatik bilerara bertaraturiko hamabi zinegotziren aldeko zortzi botuz (bost **EAJ**-renak, bi **E.A**-renak eta bat **PSOE**-koa), eta lau abstentzioz, (hiru **IZUSTARRI**-renak eta bat **E.B-BERDEA**kena),
ERABAKI DA:

San Juan Egoitzako 2. Kreditu aldaketa onartzea.

7.- ORDENANTZA FISKALAK 2.005: OHARPENAK EBATZI.

Hazienda Batzordeko Lehendakariak zera dio, 2.005erako Ordenantza Fiskalen haserako onarpenaren eztabaidan, **E.B-Berdeak**, Ondasun Higiezinaren gaineko zergan familia ugariari hobariak onartzeko aurkeztutako emendakin baten harira emendakin transakzional bat onartu zela, hobari horiek lortzeko ezartzen zen balore katastralaren mugari buruz azterketa bat egitearen konpromezuarekin.

Izan ere, balore katastral hori zuten etxebizitza kopurua urria izan zitekeelako susmoa bait zegoen.

Azterketa hori egin dugu eta balore hori 100.000 eta 120.000 € bitartean ezartzea proposatzen da, balore horrek Zumaiako etxebizitzaren % 82^a barneratzen bait du.

Ordenantzak 30 eguneko jendaurreko agerraldi epean daudela kontuan izanik oharpen hau onar dadila proposatzen dugu Ordenantzak zentzu honetan behin betikoz onartuaz.

Ondoren proposamena irakurtzen du:

HOBARIAK FAMILIA UGARIEI OHZ ZERGAN.

Familia ugariaren titularitatea duten subjektu pasiboentzat zergaren kuota osoan ondorengo hobari-eskala ezarri da, horrez gain zehazten diren baldintzak betetzen badituzte:

- a) %50eko hobaria 3 seme-alabako familia ugariari
- b) %70eko hobaria 4 seme-alabako familia ugariari.
- c) %90eko hobaria 5 edo seme-alaba gehiagoko familia ugariari.

Hobaria eskuratzeko baldintzak hauexek dira:

- a) Zergaren subjektu pasiboa, zergaduna, familia ugariaren titularra izan behar da.
- b) Familiako kideak ezingo dute beste etxebizitzaren jabe izan.
- c) Etxebizitzaren balio katastrala 120.000 euro edo gutxiagoko balioa beharko du izan.

Hobaria eskuratzeko aurkeztu behar diren agiriak.

- a) Eskaera egiten den momentuan indarrean dagoen familia ugariaren tituluaren fotokopia.
- b) Familia Liburuaren fotokopia
- c) Bizikidetasunaren egiaztagiria
- d) Etxebizitzaren jabe izatearen titulua
- e) Eskaera egiten den urtearen aurreko urteko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren errezioboaren fotokopia.
- f) Familiako inork beste etxebizitzarik ez duela ziurtatzen duen subjektu pasiboaren zinpeko aitortpena.

Hobariaren iraupena.

Hobariak eskaera egiten den urtean bertan egingo den errezioban izango ditu bere ondorioak; eskaerak urtero berriztu behar dira, ondoko atalean esandako epe edo denbora honen barruan.

Hobari eskaerak aurkezteko epea:

Hobari honen eskaerak urtarrilean aurkeztu behar dira urtero. Ez dira onartuko beranduagoko egiten diren eskaerak.

Eztabaida amaiturik bozketa egiten da, eta eskubidezko hamahiru zinegotzietatik bilerara bertaraturiko hamabi zinegotziren aldeko hamaika botuz (bost EAJ-renak, hiru IZUSTARRI-renak, bi E.A-renak eta bat PSOE-rena), eta abstentzio batez, E.B-BERDEAkena, ERABAKI DA:

Ofizioz, Ondasun Higiezinaren gaineko zergan familia ugariari hobariak onartzeko aurkezturiko oharpena onartzea.

8.- EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIAREN HILDOTIK PLAN ESTRATEGIKOA: 2005-2008 ONARTZEA, BIDEZKO BADA.

Alkateak, Euskara Batzorde berriemaileko Lehendakariak, zailtasunak zailtasun eta kostatu zaigun arren, ardatza gauzatuta dagoela dio.

Plan Estrategikoak 2.005-2008 urte muga horretan bete beharrekoak finkatzen ditu. Urte bakoitzean egin beharrekoak zehaztu eta finkatutako helburuak bete diren neurtzeko erabiliko da.

Dokumentu hau Euskarako Batzorde berriemailean aurkeztu da. Zinegotziak aztertuko zenutelakoan ez dugu bere osotasunean irakurriko.

Erabilera esparru ezberdinekin zubiak egiteko Euskara Batzordea ere osatu da.

Plan Estrategikoa idatzi duen teknikariak, Josune Herrartek, Alkatearen eskariz, aipagarri eta garrantzitsuenak diren helburu estrategikoen berri ematen du. Hala nola, Euskara ondorengoetaratzeari dagokionez, Irakaskuntza eta familia nabarmentzen ditu. Aldaketa handiena suposatuko duena berriz Merkataritza Plana izango da bere esanetan eta azkenik Udalaren erabilera Plana.

IZUSTARRI Taldekoek hitz txandaren erabileran Euskara Biziberritzeko Plana, lehen ere Plenoak onartua duela adierazten dute.

Baita ere Azpeitiako Udalak, arlo honetan “Bai Euskararekin” elkarlanean diharduela adierazten dute. Zumaian ere horrelako zerbait egin daitekeela diote.

Alkateak zera erantzuten du, Udalak orain Plenoan onartu dezan proposatzen dena Plan Estrategikoa dela; lehen onartu zuena berriz Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia izan zela eta formalki onartzearen helburua, Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzak lortzeko izan zela. Ondoren ekintza Planak onartu beharko ditugu.

Azpeitiako Udalak gai honetan nola dihaduen ezezaguna zaigu, baina galdetuko dugu.

Eztabaida amaiturik bozketa egiten da, eta eskubidezko hamahiru zinegotzietatik bilerara bertaraturiko hamabi zinegotziren aho batasunean, **ERABAKI DA:**

Zumaiako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren 2.005-2008 Plan Estrategikoa onartzea.

9.- DATUEN BABESERAKO LEGE ORGANIKOA. SEGURTASUN POLITIKA.

Alkateak, gogorarazten du datuen babeserako Lege Organikora Udalaren jarduera egokitzeko urrats bat gehiago dela Segurtasun politiken agiria onartzea.

Guzti hau Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntza bat zela bide jarri zen martxan. Ondoren lan hori egiteko enpresa bat kontratatu genuen.

Enpresa honekin orain gutxi gai honen berri emateko izan nuen bileran, Zumaiako Udalaren segurtasun maila kaxkarra zela adierazi zidaten. Beraz gure helburua ahuldade horiek indartzea izango da.

Eztabaida sortzen da seguruena den sistema operatiboari buruz, hau da Windows, Linux , XP ... IZUSTARRIkoek, enpresako teknikariak seguruena Linux zela zioela adierazten dute eta EAJ-koek aldiz beste batzuk ere badaudela diote.

Bozketa egiten da, eta eskubidezko hamahiru zinegotzietatik bilerara bertaraturiko hamabi zinegotziren aldeko hamaika botuz (bost EAJ-renak, hiru IZUSTARRI-renak, bi E.A-renak eta bat PSOE-rena), eta abstentzio batez,E.B-BERDEAkena, ERABAKI DA:

Datuen babeserako Segurtasun Politika agiria onartzea.

10.- ESKARI GALDERAK:

Alkateak, zinegotziren batek eskari galderarik egin nahi lukeen galdetzen du.

EAJ-ko Asier Esnal zinegotziak Udaletxeko eraikuntzako bilera aretoan egiten den azken Plenoa izango dela gogorarazten du.

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate-Lehendakari andereak bilera amaitutzat ematen du, gaueko bederatziak eta hogeitamar minutu direnean, eta nik Idazkariak fede ematen dut.

ALKATEAK O.E

IDAZKARIAK